

## Ugalderen ametsa

[Egile ezezaguna]

Berria, 2004-10-05: VI.

*70 urte beteak zituela igo zen euskarazko egunkaria sortzeko egitasmoaren gurdira, eta bere ekarria berebizikoa izan zen*

Martin Ugaldek bere burua kazetari eta euskaltzale ikusi zuen unetik izan zuen amets euskarazko egunkaria. Nola Lizardik, eta nola beste askok aurretik. Baina Ugaldek lortu egin zuen, eta 70 urte beteak zituela *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko gurdira igo zen, eta esan liteke neurri handi batean horrekin bete zuela bere ametsik kutunena. Martin Ugaldek bere bizitzan erabaki garrantzitsu asko hartu zituen: erbestera joatea 25 urterekin bizimodu bila; erbestetik itzultzea bizimodu eroso utzita, emaztearekin eta hiru seme-alabarekin; 22 urtean erdaraz idazten jardun eta gero euskarara salto egitea 48 urte zituela... Eta beste asko maila publikoan eta baita pribatuan ere. Ugalde ez zen lasai, etxean, txokoan, "gazteek egingo dute" esaka geratu inoiz.

1987an idatzi zuen euskarazko egunkari baten beharraz. Hurrengo urtean, elkarrizketa egin zieten *Argia*-ko urtekarian berari eta Joxemi Zumalaberi. Eta han ere gai bera izan zuen aipagai. Bi egunera deitu zioten *Argia* aldizkariko gazteek berriro, eta, Joxemi Zumalabe buru zutela, egunkariaren proiektua aurkeztu zioten. "Ikusi nuen politikoki babesa zabaltzeko babes bila zebiltzala. Eta baietz esan nion, egia esan, Joxemiren sua egiazkoa zen; zailtasunak, asko. Sinistu egin nuen. Beharbada sinistu nahi nuelako ere, ez baitzen han beste egiazko surik eta lanerako bihotzik ikusten. Diputazioko Beloki (Jose Ramon Beloki) etorri zitzaidan proiektu hori ez zela posible, eta honen orde z beraiek zuten asmoa erakutsi zidan: doan zabaltzeko foileto polit baten koloreak! Kazetari bezala, aukera garbia ikusi nuen".

Baiezkoa eman zuen Ugaldek. "Euskararen bizia jokoan ikusi nuelako. Egunkari bat ez duen hizkuntzak ezin du aurrera irten. Beste gauza asko ere behar ditu oraindik, baina egunkari bat ezinbestekoa da!".

Erbestean, 15-16 urte besterik ez zuela, Donibane Lohizunen irakasle izan zuen Agustin Zumalabe matematikari eta euskaltzainaren iloba zuen aurrez aurre, euskarazko kazetarako laguntza eske. Bizitzaren jira-birak. "Ni hemen zuregatik nago", behin baino gehiagotan esan zion Zumalaberi. Ugalde egunkariaren gurdira igotzea bihurgune garrantzitsua izan zen: egitasmoari sendotasuna eta zabaltasuna ekarri zizkiolako, eta euskaltzaleen belaunaldi gazte eta zaharren arteko zubia ahalbidetu zuelako.

## Diplomatiko lana

Joan Mari Torrealdei, Karlos Santamaria, Joxemi Zumalabe eta Ugaldek Egunkaria Sortzen ekimeneko batzorde diplomatikoa osatu zuten. Erakunde eta alderdi politikoekin bildu, egitasmoa azaldu eta sostengua lortzeko asmoz bileraz bilera ibili ziren egunkaria sortu aurretik, baita gero ere.

Ez zen lan samurra izan. *Egunkaria*-ren sorrera bera zaila izan zelako, bereziki diru laguntzak lortzerakoan. Bilerak gogorrak ziren asko eta asko. Bat edo beste, oso gogorra. Joseba Arregi orduko Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuarekin izandakoa horietako bat. "Ez zait mamu gehiago kolkoan kabitzen", esan eta Ugalde bileratik altxatu zenekoa.

*Egunkaria*-k, aurrera egin ahala, Andoainen hartu zuen egoitza, Martin Ugalde Kultur Parkean. Izan ere, kultur parkeak euskalgintzako hainbat enpresa biltzen ditu lehen Laborde torloju lantokia zegoen lekuan. Bizitzaren beste jira-bira bat. Gerra ondoren Andoainen lana –"pioi lana, pabiloi berriko leiho pintura eta kristalak betunarekin lotzeko"– eman zioten lantoki bakarrean zabaldu zen 2002an Martin Ugalde Kultur Parkea.

Ugalde 1998 arte *Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko lehendakaria izan zen, eta ordudanik ohorezko lehendakari, harik eta Juan del Olmo epaileak Egunkaria itxi eta zuzendaritzako kideak atxilotu zituen arte. Operazio hartan, Ugalde auzipetu eta diru kontuak blokeatu zizkioten. ETArene babesean sortutako enpresa omen, Del Olmoren iritziz. Bizitzaren beste jira-bira gaizto bat: kolkoan kabitzen ez zitzaion mamua itzuli, eta Ugaldere azken ekimen garrantzitsuena betiko bertan behera geratu zen.